

Interes orokorreko xedapenak, buletinetan argitaratuta (E.A.E., E.H.A.A., A.L.H.A.O., B.A.O., G.A.O. y E.B.A.O.), **2024ko martxoaren 02tik martxoaren 08rako astea.**

I.- HITZARMEN KOLEKTIBO SEKTORIALAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/03/07

- **LAN ETA GIZARTE EKONOMIA MINISTERIOA. Laneko hitzarmen kolektiboak.** Ebazpena, 2024ko otsailaren 26koa, Laneko Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez erregistratzen eta argitaratzen baita landare-kontserben fabrikazioaren sektoreko Estatuko oinarritzko hitzarmen kolektiboari dagokion 2024ko behin-behineko soldata-
taula. **4471 xedapena- 3 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/03/05

- **EUSKO JAURLARITZA. LANA ETA ENPLEGUA.** Gipuzkoako Lurralde Historikoko hainbat arlotako sektoreari (bide garbiketa publikoa, ureztaketak, etxez etxeko zabor bilketa, hiri hondakin solidoen zaborteak, hondartzen garbiketa, hondakinen tratamendua eta ezabapena, gaikako bilketa, birziklapen plantak, eta estolderiaren garbiketa eta kontserbazioa) dagokion hitzarmen kolektiboa. **1465 xedapena- 28 or.**

II.- XEDAPEN OROKORRAK:

E.A.O. (Estatuko Aldizkari Ofiziala)

2024/03/02

- **EKONOMIA, MERKATARITZA ETA ENPRESA MINISTERIOA. Pentsioak.** Zirkularra, 2024ko otsailaren 19koa, Aseguruen eta Pentsio Funtsen Zuzendaritza Nagusiarena, zeinaren bidez ezartzen baitira pentsio-prestazioen aurreikuspenak kalkulatzeko arauak, pentsio-prestazioen aitortzean enpleguko pentsio-planen partaideei ematen zaien informazioaren ondorioetarako. **4075 xedapena- 15 or..**

2024/03/04

- **EUSKAL AUTONOMIA ERKIDEGOA. Zirkulazioa. Neurri bereziak.** Ebazpena, 2024ko otsailaren 20koa, Segurtasun Saileko Trafiko Zuzendaritzarena, zeinaren bidez ezartzen baitira 2024an Euskal Autonomia Erkidegoan trafikoa erregulatzeko neurri bereziak. **4143 xedapena- 11 or.**

E.H.A.A. (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkaria)

2024/03/06

- **EKONOMIA ETA OGASUN SAILA.** AGINDUA, 2024ko martxoaren 4koa, Ekonomia eta Ogasuneko sailburuarena, Eusko Legebiltzarrerako hauteskundeei buruzko ekainaren 15eko 5/1990 Legean jasotako zenbatekoak eguneratzeko dena. **1168e xedapena- 1or.**

2024/03/08

- **KULTURA ETA HIZKUNTZA POLITIKA SAILA.** 19/2024 DEKRETUA, otsailaren 22koa, Euskal Sektore Publikoan euskararen erabilera normalizatzeko. **1222e xedapena- 42 or.**

E.L.H.A.O. (Arabako Lurralde Historikoaren Aldizkari ofiziala)

B.A.O.(Bizkaiko Aldizkari Ofiziala)

2024/03/04

- **OGASUN ETA FINANTZA SAILA.** Bizkaiko Foru Aldundiaren 21/2024 FORU DEKRETUA, otsailaren 29koa, zeinaren bidez plataforma eragileek ematen duten informazioa modu automatikoan nahitaez trukatzeari arreta egokiarekin jarduteko arauak eta prozedurak garatzen baitira eta Bizkaiko Lurralde Historikoko zerga-betebehar formalen araudia aldatzen baita (araudi hori Bizkaiko Foru Aldundiaren abenduaren 22ko 205/2008 Foru Dekretuaren bidez onetsi zen), fiskalitatearen arloko administrazioen arteko lankidetzari buruzko 2011/16/EB Zuzentaraua aldatzen duen Kontseiluaren 2021eko martxoaren 22ko 2021/514 (EB) Zuzentarauaren eta beste zerga-arau batzuen transposizioa egiteko. **I-251 xedapena- 18 or.**

G.A.O. (Gipuzkoako Aldizkari Ofiziala)

2024/03/06

- **LURRALDE OREKA BERDEKO DEPARTAMENTUA.** 112/2024 Foru Agindua, martxoaren 28koa, 2024ko denboraldian Gipuzkoako Lurralde Historikoan arrantza kontinentalaren aprobetxamenduari buruzko araudia garatzen duena. 1493 xedapena-11 or.

2024/03/08

- **OGASUN ETA FINANTZA DEPARTAMENTUA.** 113/2024 Foru Agindua, martxoaren 5koa, zeinaren bidez onesten baitira 238 eredua, «Plataforma operadoreek informazioa emateko aurkeztu beharreko aitorten informatiboa» izeneko eta hura aurkezteko baldintzak eta prozedura, eta orobat, informazioa ematera behartuta dauden beste plataforma operadore batzuen erregistroan alta, aldaketa eta baja eskatzeko modua eta prozedura. 1678 xedapena- 8 or.

E.B.A.O.(Europar Batasunaren Aldizkari Ofiziala)

2024/03/06

- Batzordearen komunikazioa, Europako Parlamentuaren eta Kontseiluaren 2020/1043 (EB) Erregelamendua aplikatzeko baldintzak betetzeari buruzkoa; erregelamendu horren mende daude gaixotasun koronabirikoa (COVID-19a) tratatzeko edo prebenitzeko zenbait sendagaien hornikuntza eta saiakuntza klinikoak, hots, eraldatutako organismoak dituzten edo horrelako organismoek osatzen dituzten gizakientzako sendagaiak. 1960 xedapena- 2 or.

Kepa Bilbao Zubiaur

Tfno.: 94 425 25 15 Fax: 94 423.22.95

e-mail: serviciosjuridicos@mutualia.es

.....

MUTUALIA, MUTUA COLABORADORA CON LA SEGURIDAD SOCIAL Nº 2
HENAO, 26 - BILBAO